

## **ADIERAZPENA BILBOKO LANKIDETZA-KONTSEILUARENA**

---

2024ko ekainaren 11n

2023ko urritik ia 35.000 palestinar hil dira Gazako zerrendan Israelek egindako bonbardaketetan. Bi milioi pertsona baino gehiago daude ihesbiderik gabe harrapatuta. Ospitaleak, eskolak, errefuxiatu-eremuak eta Nazio Batuen eta GKEen instalazioak bonbardatzen ari dira, inpunitate osoz. Nazioarteko zuzenbide humanitarioa sistematikoki urratzen ari dira.

Urtarrilean, Nazioarteko Justizia Gorteak neurriak hartzeko agindu zion Israeli, Gazan genozidiorik gerta ez zedin. Lau hilabete geroago egoerak okerrera egin du. Bonbardaketak etengabeak dira eta gosea gerrako arma gisa erabiltzen ari dira; Nazio Batuetako zenbait agentziak inguru horretan aurrekaririk ez duen gosete-egoera dagoela salatu dute. Ospitaleak gainezka daude, biztanleen behar handiei erantzun ezinik, energiari, material kirurgikorik edo botikarik gabe. Bien bitartean, laguntza humanitaria duten kamioiak atxiki dituzte, eta Israelek ez die uzten inguruan sartzen. Egoera katastrofiko da.

Israel Rafahn sartu izanak are gehiago okertu du muturreko giza krisia. Pasabide hori itxita dago, eta laguntza humanitaria edo langile humanitarioak ezin dira sartu, ezta jendea bertatik atera ere. Erasoen ondorioz iparraldetik atera den populazioa hartu du Rafahk; horren ondorioz, hiriko populazioa 280.000 biztanletik 1.400.000 biztanlera igaro da. 200.000 pertsonak baino gehiagok ihes egin dute berriro, oraingoan Rafahtik. Zerrendan nonahi doazela ere, ez dute ihesbiderik, eta aurrekaririk gabeko giza hondamen bati egin behar diote aurre.

Zisjordanian ere nabarmen handitu da kolonoen eta Israelgo armadaren indarkeria. Nazioarteko hainbat erakunde eta organizaziok salatu dutenez, Zisjordania okupatuan eraso hilgarriak izan dira palestinarren aurka. Hona hemen Amnistia Internazionalaren Ekialde Hurbilerako eta Afrikako Iparralderako eskualdezuzendari Heba Morayefen hitzak: "Kolonoek palestinarren aurka darabilten indarkeria izugarri areagotu da, eta estatuak babestutako hainbat urtetako kanpaina baten parte da, Zisjordania okupatuan, Eki Jerusalem barne, eta Israelen apartheid-sistemaren pean, palestinarrek ezer gabe uzteko, lekuz aldatzeko eta zapaltzeko.

Hori dela eta, Bilboko Lankidetzak Kontseiluak hau adierazi nahi du:

- Premiazkoa da giza krisi larri hori eta giza eskubideen urraketa sistematikoa amaitzen lagunduko duten neurri guztiak hartzea. Premiazkoa da behar beste giza laguntzaren eta laguntza iraunkorraren sarbidea bermatzea.

- Bilboko herriari dei egiten diogu Palestinarekiko elkartasunean mobilizatzen jarraitzea eta duela zazpi hamarkadatik baino gehiagotik Israelgo estatua egiten ari den genozidioaren amaiera eskatzera. Horren aurrean, herri palestinarrek erresistentziarako eskubidea duela aldarrikatzen dugu, erregimen kolonial eta arrazista baten pean dagoen edozein herrik duen bezala, eta hori espresuki jasota

dago NBEren Batzar Nagusiaren 3246 1974ko azaroaren 29ko Ebazpenean, non gaur egungo Nazioarteko Zuzenbidearen egiturazko printzipioak biltzen diren; hain zuzen ere, erasoaren definizioa edota 1977ko Genevako Hiztarmenen Protokolo Gehigarria jasotzen diren ataletan. Beraz, sarraskia jasaten ari den herri honek erresistentziarako duen eskubidearen manipulazioari eta deslegitimazio- eta kriminalizazio-saioei aurre egitera deitzen dugu.

- Era berean, salatu nahi dugu Europa osoan Palestinarekiko elkartasunaren aurkako kriminalizazioa gertatzen ari dela zenbait neurriren bidez, hala nola manifestazioak debekatuta, Palestinako bandera eta beste sinbolo batzuk debekatuta edota elkartasun-erakundeak legez kanpo utzita.

Alde horretatik, Bilboko herriari dei egiten diogu:

- Estatuen eta gobernuen gaineko presioa areagotzera, Israel berehalako su-eten iraunkorra ezartzera behartzeko, eta Gazaren kontrako setioa amaitzera behartzeko, oinarrizko ondasunak eta zerbitzuak sar daitezten.

- Presioa handitzera, herritarrak Gazan eta Gazatik kanpo desplazatzera behartzen dituen edozein plan baztertu dadin.

- Espainiako Gobernuak eta Europar Batasuneko erakundeek Israeli bahitura militarra ezartzeko eskatzera, baita horien konplizitateari amaiera emateko beste zehapen batzuk eskatzera ere.

- Beharrezko neurriak har daitezela eskatzera, kontuak argitzeko prozesuak bultzatzeko eta Palestinan gehiegikeriak eta giza eskubideen urraketak jasan dituzten milioika pertsonen erreparazioa emateko.

- Europar Batasunari erantzun argi eta publikoa eskatzera, Palestinako Lurralde Okupatuetan lankidetzeta eta ekintza humanitarioaren sektorea kriminalizatzearen aurka, Europar Batasuneko Atzerri- eta Segurtasun-politikako goi-ordezkararen eta Europako Batzordeko lehendakariorde Josep Borrell jaunaren bidez.

Bi milioi palestinarren baino gehiagoren bizitza dago jokoan, baita nazioarteko zuzenbide humanitarioa ere. Gizateriak ez du horrelako basakeriarik onartu behar.

Palestina Libre baten alde.

## **DECLARACIÓN DEL CONSEJO DE COOPERACIÓN DE BILBAO**

---

11 de junio de 2024

Desde octubre de 2023, casi 35.000 personas palestinas han sido asesinadas en los bombardeos de Israel sobre la Franja de Gaza. Más de dos millones de personas continúan atrapadas sin escapatoria. Hospitales, escuelas, campos de personas refugiadas, e instalaciones de Naciones Unidas y ONG están siendo bombardeados de manera impune. El derecho humanitario internacional se está violando de manera sistemática.

El pasado mes de enero, la Corte Internacional de Justicia ordenó a Israel tomar medidas para evitar un posible genocidio en Gaza. Cuatro meses después la situación no ha hecho más que empeorar. Los bombardeos son incesantes y el hambre se está utilizando como arma de guerra; varias agencias de Naciones Unidas han denunciado la situación de hambruna sin precedentes que se vive en la zona. Los hospitales están sobrepasados sin posibilidad de atender las enormes necesidades de la población, sin acceso a energía, materiales quirúrgicos o medicinas. Mientras tanto, los camiones con ayuda humanitaria son retenidos sin que Israel permita su entrada en la zona. La situación es catastrófica.

La entrada en Rafah de Israel ha empeorado aún más un contexto humanitario extremo. La entrada de ayuda humanitaria o personal humanitario y la salida de personas a través de este paso está cerrada. Rafah acoge a la población que ha sido expulsada del norte a causa de los ataques; como consecuencia, la población de la ciudad ha pasado de 280.000 a un millón cuatrocientos mil habitantes. Más de 200.000 personas han vuelto a huir de nuevo, esta vez de Rafah. Sin posibilidad de escapatoria, vayan donde vayan en la Franja, enfrentan una crisis humanitaria sin precedentes.

En Cisjordania la violencia ejercida por parte de los colonos y el ejército de Israel también ha aumentado considerablemente. Como han denunciado distintas instituciones y organizaciones internacionales, se han producido ataques violentos mortales contra pueblos palestinos en la Cisjordania ocupada. En palabras de Heba Morayef, directora regional de Amnistía Internacional para Oriente Medio y el Norte de África, "El terrible aumento de la violencia de los colonos contra la población palestina es parte de una campaña de decenios respaldada por el Estado para desposeer, desplazar y oprimir a dicha población en la Cisjordania ocupada, incluida Jerusalén Este, bajo el sistema israelí de apartheid".

Por este motivo, desde el Consejo de Cooperación de Bilbao queremos declarar lo siguiente:

- Es urgente tomar todas las medidas que contribuyan a poner fin a esta gravísima crisis humanitaria y a la sistemática violación de derechos humanos. Es urgente garantizar un acceso humanitario suficiente y sostenido;

- Llamamos al pueblo bilbaíno a seguir movilizándose en solidaridad con Palestina y a demandar el fin del genocidio que está llevando a cabo el estado de Israel desde hace más de siete décadas, ante esto, reivindicamos el derecho a resistir que, como cualquier pueblo sometido a un régimen colonial y racista, tiene el pueblo palestino, recogido expresamente en la Resolución 3246 de 29 de noviembre de 1974 de la Asamblea General, que recoge los principios estructurales del Derecho Internacional contemporáneo, la que contiene la definición de la agresión o el Protocolo Adicional de los Convenios de Ginebra de 1977. Por ende, invitamos a contrarrestar la manipulación y los intentos de deslegitimación y criminalización de la resistencia de este pueblo que está siendo masacrado.

- Asimismo, denunciamos la criminalización contra la solidaridad con Palestina que se está dando por toda Europa a través de medidas como la prohibición de manifestaciones, la prohibición de símbolos como la bandera palestina o la ilegalización de organizaciones de solidaridad.

En este sentido, emplazamos al pueblo bilbaíno a:

- Aumentar la presión contra los estados y gobiernos para imponer un alto al fuego inmediato y permanente a Israel, y que este levante el asedio a Gaza para que pueda darse la entrada de bienes y servicios básicos.

- Aumentar la presión para que se rechace cualquier plan de desplazamiento forzado de la población dentro y fuera de Gaza.

- Exigir que se imponga un embargo militar a Israel por parte del gobierno español, y las instituciones de la unión Europea, así como otras sanciones para poner fin a su complicidad.

- Demandar que se tomen las medidas necesarias para impulsar procesos de rendición de cuentas y reparación a las millones de víctimas de abusos y vulneraciones de derechos humanos en Palestina.

- Exigir una respuesta clara y pública por parte de la Unión Europea contra la criminalización del sector de la cooperación y de la acción humanitaria en el Territorio Ocupado Palestino a través del Alto Representante de la Unión Europea para Asuntos Exteriores y Política de Seguridad y Vicepresidente de la Comisión Europea, Sr. Josep Borrell.

Más de dos millones de vidas palestinas están en juego; el derecho internacional humanitario también. La humanidad no debe permitir tal barbarie.

Por una Palestina Libre.